

Egun on guztioi: Gurasoak, irakasleak, txuleteroak baina gaindituta, txuleteroak baina suspendituta, ohorezko matrikulak eta, tira, besteok bete-lanetan gaudenok.

Gu talde arraro horiek gara, Amurriokoak eta Ugaokoak, duela bi urte baino ez iritsi ginenak, azken orduko fitxajeak, eta, gure parte-hartzearekin (eta zuen faltarekin) klaseak hobetu ditugunak. Batzuek oraindik "berriak" deitzen gaituzte. Eta berriak izan arren, gaur bagoaz. Eskerrik asko harrera beroagatik!

Ikastolara iritsi ginenean, azterketa bat kalkulagailurik gabe egitea bezala sentitu ginen. Taldeak osatuta zeuden, barneko txantxak ez genituen ulertzen, irakasleek bazekiten nork kopiatzen zuen, nork ez, eta atzean mugikorrarekin egoteko nor esertzen zen. Eta gu han, eserita, pentsatzen... honek itxura ona du, honek ez, honek... bueno, ez dakit.

Hasieran, artaldeko ardi beltzak bagina bezala sentzen ginen. Denek elkar ezagutzen zuten gutxienez 3 urtetatik. Guk, bestalde, "Non dago musika gela?" galdetzen genuen eta : "Pepita laugarren mailan erori eta hanka hautsi zuen pasiloaren ondoan". erantzuten ziguten Barkatu? Nor da Pepita?

Baina pixkanaka, moldatzen joan ginen. Ikastetxeko sekretuak ikasi genituen: zein irakaslek ematen dituen ordu erdiko txapak (eskerrik asko, Juancar, benetan maite zaitugu), zeinek 4,95 batekin ez dizun gainditzten (lasai, ez dut inor begiratuko, non dago Jonmu?), eta, noski, reggaeton kontzertuko segurtasun-agentetzak ziruditenak, zure estutxea miatzen dutenak, txuletak sarrera faltsuak balira bezala (Lorea, aldatu rolloa, hau ez da Ibizako after bat!).

Hemen betidanik egon zaretenoi: miresten zaituztegu. Zuen artean, batzuek ikastola honetako hormek baino historia gehiago duzue. Literalki. Badira zurrumurruak batzuk jolastokiaren iturrian bataiatuak izan zirela.

Gure irakasleei: eskerrik asko amorerik ez emateagatik. Eta eskerrik asko mateamatika ulertzeko betaurreko magikoak benetan existitzen zirela sinestarazteagatik (Inma, gero irteeran elkartuko gara eta esango didazu non erosten diren, batzuk oraindik ez baitira enteratu). Eskerrik asko irakasteagatik, gu aguantatzeagatik, eta fedea ez galtzeagatik 18ko letra-tamainarekin lanak entregatzen genituenean (luzeagoak ziruditen). Zin egiten dizuet ez zela alferkeria, Chat GPT-k ez zuen gehiagorako ematen.

Eta gure familiei: bai, amaitu dugu. Ez, oraindik ez dakigu zer egin nahi dugun gure bizitzarekin. Baina pentsatzen ari gara. Bueno, batzutan.

Ikasi dugun zerbait, batxilergoa harreman toxiko bat bezalakoa dela da: estresatu egiten zaitu, loa kentzen dizu, baina azkenean paper bat ematen dizu "lortu duzu" dioena, eta zu malkotan joaten zara. Baina harro.

Bi urte hauetan denetarik egiteko denbora izan dugu:

— Apunteak hartzen genituela disimulatzen ikasi dugu, mahaiaren azpitik TikTok irekitzen genuen bitartean.

— Azterketa baino ordu erdi lehenago ebaluaketako teoria osoa ikasten

— “Oraingoan denboraz ikasiko dut” esaten... eta gero inoiz baino denbora gutxiagoarekin ikasten.

— Eta komunikazio-trebetasun aurreratuak garatzen: “Aizu, norbaitek etxerako lanak eginda ditu?” edo “Hau azterketan sartzen da ala deskarte ehuneko ehunean?”. Idazketa-gaitasuna ere garatu dugu: “Kaixo chatii, 250 hitzeko iruzkin pertsonal bat idatziko zenidake mesedez? Baina 17 urteko neska ez oso argi batek idatzi duela ematea, ortografia-akats batzuekin susmoak ekiditeko”

Gaur bagoaz, eta nahiz eta bakarrik bi urte hemen egon, istorioak, adiskidetasunak, anekdotak... eta, zortearekin, titulua eramango dugu. Azken finean, ez du axola haurtzaindegitik hemen egon zaren edo batxilergoko lehenengo mailan sartu zinen: esperientziaz gozatzea garrantzitsusena da. Eta guk... bi urte hauek 5 euroko apustua egin dugun galgo lasterketa batean baino emozio handiagoz bizi izan ditugu.

Eskerrik asko entzuteagatik, onartzeagatik, eta gehiegi ez epaitzeagatik astero tutoretza desdoble edo guztiok gelan zela galdetzen genuenean.

¡Zorionak guztioi graduazioagatik!, eta etorkizunak kafe askorekin, blokeatu gabeko Chat GPT-rekin eta 4,5arekin ez penkatzen gaituen irakasle batekin harrapa gaitzala.